

ETENGABE, Araba Euskarazen 2025ko leloa

Bastida ikastola laguntzeko egingo da Arabako ikastolen heldu den urteko jaia

•

Olarizun ospatuko da ekainaren 15ean, zortzi ikastolek bat eginda, eta urte osorako egitaraua ere izango du

•

Gaur aurkeztu dugu 2025. Urteko Araba Euskaraz jaia, azken aldietan bezala, Araba Euskaraz urtea izango dena, urtean zehar hainbat ekintza programatuko baitugu Arabako ikastolok, elkarlanean antolatuko dugun egitarauan. Jaia ekainaren 15ean ospatuko dugu, Gasteizen, Olarizun, eta urteko ekitaldiei urriaren 18an emango diegu hasiera, Bastidan. Izan ere Arabar Errioxako Bastida ikastola laguntzeko egingo da hurrengo Araba Euskaraz. ETENGABE da 2025eko Araba Euskarazentzat aukeratutako leloa.

Gaur aurkeztu dugu, Gasteizen, 2025eko Araba Euskaraz. Aurtengo leloa eta logotipoa erakustearaz gain, urritik ekainera bitarte aurreikusten ditugun ekimenak ere aurkeztu ditugu, eta 2024ko Araba Euskarazen amaierako balorazioa ere egin dugu. Araba Euskaraz Kultur Elkarteko lehendakari Unai Mendizabalek, Bastida ikastolako zuzendari Ketxu Bedialaunetak eta San Bizente ikastolako Arturo Lopez de La Calle hartzute hitza. Halaber, Arabako beste sei ikastoletako ordezkariak ere izan dira agerraldian.

LELOA

- **Etengabe, ikastola:** 45 urte badira ikastola ireki genuela, eta ordutik etengabe ari gara Bastidari kalitatezko hezkuntza eskaintzen, euskararen eta euskal kulturan ardaztuta. Gurasoen kooperatiban antolatua, bokazioak, inplikazioak eta pasioak mugiarazten gaitu.
- **Etengabe, hezkuntza eta pedagogia:** Ikastola ereduaren oinarrituta, pedagogia aurrerakoak baliatuz, ikasleak erdigunean jarrita hezten ditugu, haien baitira gure egitekoaren ardatz, gure iparra.
- **Etengabe, hizkuntza eta kultura:** Ikastola ereduaren zutabe nagusiak izaki, euskararen eta euskal kulturaren transmisioa eta biziberritzea ditugu helburu, eta, ezagutzaz gain, erabilera, sormena eta gozamena bilatzen ditugu.

- **Etengabe, berrikuntza eta eraldaketa:** Ikerkuntzan, garapenean eta berrikuntzan oinarritutako eraldaketa ari gara eragiten hezkuntzan. Hezkuntza ari gara eraldatzen, gizartea eraldatu nahi dugulako. Horretarako, irakasle eta profesional talde konprometitu eta sendo bat daukagu.
- **Etengabe, eragiten:** Herrian txertaturik, herrian eragiten. Bastidari zabal zabalik gaude. Hartu-eman etengabean, herritarrekin lankidetzan, hezkuntzan, euskaran eta euskal kulturan eragiten dihardugu etengabe. Eskualdeko beste ikastolekin harreman estuan, Arabar Errioxa guztian eragitea dugu helburu.

LOGOTIPOA

"Etengabe" lelotik abiatu gara bi zatitan osatutako logotipo bat sortzeko. Goiko aldeak leloaren esanahia irudikatzen du, tipografia informalarekin sortua, trazuren jarraitasuna erabiliz, esaldiaren esanahia irudikatzen duen gezi batekin lagunduta. Aldiz, izenaren alde instituzionala (Araba Euskaraz 25), tipografia sendoago eta serioago batekin sortu da, tipografiaren bertsio ezberdinekin jolastuz, egonkortasuna eta modernotasuna ematen duelarik.

Koloreetarako, Bastida herritik eratorritako gama kromatiko bat aukeratu da, alde batetik, etxeen, teilatuen eta harresien okre, marroi eta laranja koloreak erabiliz, eta bestetik, mahastietako eta mahatsondoetako more, fuksia eta arrosa koloreak. Kolore hauek bata bestearekin konposatuz diseinu erakargarria lortzen dugu.

Iruditegi grafiko moduan, geziak, norabide lerroak eta triangeluak erabili ditugu; leloa indartzen dute eta proposamen grafikoari dinamismoa ematen diote.

ARABA EUSKARAZ '25

Arestian aipatu bezala, Araba Euskaraz urte osora eramango dugu aurten ere, Ikastolen Elkartean batzen garen Arabako zortzi ikastolen artean landu dugu egitaraua, eta berau eta Araba Euskaraz eguna antolatzeko batzordeak ere osatu ditugu.

Urtean zehar hainbat ekimen eramango ditugu aurrera denon artean, urrian bertan hasita. Datetan aldaketaren bat izan daitekeen, eta aipatzen direnez gain besteren bat ere antolatu dezakegun arren, hauek dira buruan ditugun ekimenak:

- Urriak 18: **Araba Euskaraz 25 Aurkezpen jaia**, Bastida.
- Abenduak 3 eta 4: **Gazte Talent lehiaketaren finala**, Gasteiz.
- Urtarrilak 26: **Go!azen kontzertua**, Gasteiz.
- Otsailean : **AE 25 Euskal Pilota Topaketak**, Bastida.
- Martxoan: **AE 25 Abestiaren aurkezpena**, Gasteiz.
- Martxoan eta apirilean : **AE 25 Maters Series** (Jai Alai league), Gasteiz.
- Apirilak 4: **Non eta Mugan Gazte Topaketa**, Bastida.
- Apirilak 11: **Elkarrekin Martxan!**, Bastida, Argantzun eta Aiaraldean.

- Maiatzak 17: **Etengabe Jaialdia**, Bastida.
- Ekainak 15: **Araba Euskaraz 2025** jaia, Olarizu (Gasteiz).

Araba Euskaraz egunari begira, berriz, aurreko urteotan bezala, haurrei eta familiei bideratutako jai eguna ari gara prestatzen, baina adin guztieta rako askotariko kultur ekimenak eskainiko ditugu. Jai parte-hartzailea izatea nahi dugu, eta euskararen erabilpena bultzatuko duena. Erakundeek, babesleek eta laguntzaileek tokia izango duten jaia izango da.

BASTIDA IKASTOLA

Aurrez esan bezala, Araba Euskaraz 2025 Bastida ikastola laguntzeko egingo da. Zortzi ikastolak eskuz-esku, auzolanean, arituko dira urte osoan zehar antolatuko diren ekintzetan. Bastida ikastola 1979. urtean sortu zen bederatzi ikaslerkin. Gaur egun 132 ikasle ditu, eta Bastidakoak ez ezik, Euskal Herritik kanpo bizi diren hainbat ikasle ere hartzen ditu.

Eskualde erdaldunean kokatuta egonik, euskalgintzan eragile nagusietakoa da Bastida ikastola, ikastola barruan bezala, herrian ere eragiten diharduelarik euskara biziberritu dadin, Euskaraz Bizi programaren bitartez.

2025eko Araba Euskarazen bitartez hauek dira ikastolak lortu nahi dituen helburuak:

- Bastida Ikastolatik Euskararen eta Euskal kulturaren alde egiten dugun lanari garrantzia ematea: *45 urtez etengabe auzolanean aritu gara Bastidan Euskara eta Euskal kultura zabaltzen. Herrian eragiten.*
- Bastidan eta Arabar Errioxan Euskararen eta Euskal kulturaren alde eragitea: *euskararen eta euskal kulturaren transmisioa eta biziberritzea ditugu helburu, eta, ezagutzaz gain, erabilera, sormena eta gozamena bilatzen ditugu.*
- Bastida Ikastolaren hezkuntza proiektua ezagutzen ematea eta sendotzea: *proiektuan parte hartuko duten familia eta bidelagun berriak lortzea.*
- Ikastolako proiektuari jarraipena emateko finantzazioa lortzea: *Ikastolan egin behar diren inbertsioei aurre egiteko.*

ARABA EUSKARAZ 2024

2025eko ekitaldia aurkezteaz gainera, 2024ko Araba Euskaraz urtearen balorazioa ere egin dugu gaurko agerraldian. Azpimarratu behar dugu jarritako helburuak bete egin direla. San Bizente ikastolaren hezkuntza proiektua ezagutzen ematearekin batera, Oionen eta Arabar Errioxan euskararen erabilpena aldarrikatzeko eta bultzatzeko, eta erabilpen eremuak zabaltzeko baliatu nahi genuen Araba Euskaraz 2024. Eta neurri batean lortu dugula uste dugu: urtean zehar antolatutako jardueren ikastolako proiektua kalera atera da. Arabar Errioxan interesa berpiztu da; ikastolako komunitatea pozik dago lortutako emaitzakin eta hedabideetan izandako oihartzunarekin San Bizente ikastolaren irudia indartzea lortu da.

Bestalde, ekainaren 16an, igande horretan, Olarizura euskaran eta Araba Euskarazen murgiltzen milaka lagun gerturatu ziren gurera. Oso pozik gaude herritarrek eman zuten

erantzunarekin. Eguna biribil irten zen, eta gaur ere, eskerrak eman nahi dizkiegu hau dena aurrera ateratzen aritu ziren guzti-guztiei.

Olarizura itorri ziren milaka lagunentzako ikastolen, euskararen eta euskal kulturaren jai handi honetako egitarauan zeuden ekintza guztiak aurrera atera genituen, eta une gogoangarriak ere bizi izan genituen. Azpimarratu nahiko genituzke parte-hartzea sustatzen duten bi ekimen. Batetik, azken urteotan herrialde guztiotako ikastolen jaietan gazte eta gaztetxoen parte-hartzea sustatzea eta haien protagonista bilakatzea helburu dituen **Erronka** egitasmoa.. Bestetik, berriz, **dantza plaza** aipatu nahiko genuke. Zoragarria izan zen ehunka lagun, haur, nerabe, gazte, heldu eta nagusiak elkarrekin dantzan ikustea, parte hartuz, soka batean.

Aurreko ikasturtean zehar, zortzi ikastolok eskuz esku aritu ginen lanean, Oiongo San Bizente ikastolaren alde. Arabar Errioxako ikastola honen proiektua aurrera eramateko beharrezko hauspoa eta laguntza jaso dugu Araba Euskaraz 2024 egitasmoarekin. Herritarrek ere eman zuten erantzuna itzela izan zen.

Gasteizen, 2024ko urriaren 10a

ETENGABE, lema de Araba Euskaraz 2025

La fiesta de las ikastolas de Araba servirá para apoyar e impulsar la Ikastola Bastida

•

Se celebrará en Olarizu el 15 de junio, organizada entre las ocho ikastolas alavesas y tendrá, también, un programa para todo el año

•

Hoy hemos presentado la fiesta del Araba Euskaraz de 2025, que como en las últimas ocasiones, no se limitará a un único día, ya que a lo largo del año programaremos una serie de actividades que organizaremos de forma colaborativa las ikastolas de Araba. La fiesta se celebrará el 15 de junio, en Gasteiz, en Olarizu y los actos del año se iniciarán el 18 de octubre en Labastida. De hecho, este Araba Euskaraz se va a realizar para ayudar a la ikastola Bastida de Rioja Alavesa. ETENGABE es el lema elegido para Araba Euskaraz en 2025.

Hoy hemos presentado en Vitoria-Gasteiz, Araba Euskaraz 2025. Además de mostrar el lema y el logotipo de este año, se han presentado las iniciativas previstas de octubre a junio y se ha realizado la valoración final de Araba Euskaraz del 2024. Han tomado la palabra Unai Mendizabal, Presidente de la Asociación Cultural Araba Euskaraz, Ketxu Bedialauneta, Director de la Ikastola Bastida y Arturo Lopez de La Calle, director de la Ikastola San Bizente. También han asistido a la comparecencia representantes de las otras seis ikastolas alavesas.

LEMA: ETENGABE

- **Constantemente, ikastola:** hace 45 años que abrimos la ikastola y desde entonces estamos ofreciendo una educación de calidad a Labastida, centrada en el euskera y la cultura vasca. Organizada en la cooperativa de padres y madres, nos mueve la vocación, la implicación y la pasión.
- **Educación y pedagogía continuas:** desde el modelo Ikastola, con una pedagogía progresista, ponemos al alumnado en el centro, en el centro de nuestra tarea, en nuestro norte.
- **La lengua y la cultura continuamente:** como pilares principales del modelo Ikastola, buscamos la transmisión y revitalización del euskera y de la cultura vasca, buscando, además del conocimiento, su uso, la creatividad y el disfrute.
- **Innovación y transformación continuas:** Estamos incidiendo en la educación en una transformación basada en la investigación, el desarrollo y la innovación. Estamos transformando la educación porque queremos transformar la sociedad. Para ello contamos con un equipo de profesores y profesionales comprometido y sólido.
- **Incidiendo constantemente:** insertados en el pueblo, incidiendo en el pueblo. Estamos abiertos a Labastida. Estamos incidiendo constantemente en la educación, en el euskera

y en la cultura vasca a través del contacto permanente y la colaboración con la ciudadanía. En estrecha relación con otras ikastolas de la comarca, el objetivo es incidir en toda Rioja Alavesa.

LOGOTIPO

Partimos del lema "Etengabe" para crear un logotipo formado por dos partes. La parte superior representa el significado del lema, creado con tipografía informal, utilizando la continuidad de los trazos, acompañado de una flecha que representa el significado de la frase. Por el contrario, la parte institucional del nombre (Araba Euskaraz 25) se ha concebido con una tipografía más sólida y seria, jugando con diferentes versiones tipográficas, dando estabilidad y modernidad.

Para los colores se ha optado por una gama cromática procedente de la localidad de Labastida, utilizando por un lado los colores ocre, marrón y naranja de casas, tejados y murallas, y por otro los colores morado, fucsia y rosa de viñas y vid. Compaginando estos colores entre sí conseguimos un diseño atractivo.

Como imaginario gráfico hemos utilizado flechas, líneas de dirección y triángulos que refuerzan el lema y dan dinamismo a la propuesta gráfica.

ARABA EUSKARAZ'25

Como se ha comentado anteriormente, este año volveremos a llevar a cabo Araba Euskaraz durante todo el año, hemos trabajado el programa entre las ocho ikastolas alavesas que nos integramos en Ikastolen Elkartea y hemos creado comisiones para organizar el día y el año de Araba Euskaraz.

A lo largo del año se llevarán a cabo diversas iniciativas conjuntas, que comenzaremos en octubre. Aunque en las fechas puede haber algún cambio, y además de las que se mencionan, podemos organizar alguna otra, las iniciativas que tenemos en mente son las siguientes:

- 18 de octubre: **Presentación del Araba Euskaraz 25**, Labastida.
- 3 y 4 de diciembre: **Final del Concurso Gazte Talent**, Gasteiz.
- 26 de enero: **Concierto de Golazen**, Gasteiz.
- Febrero: **AE 25 Euskal Pilota Topaketak**, Labastida.
- Marzo: **AE 25 Presentación de la canción**, Gasteiz.
- Marzo y Abril: **AE 25 Maters Series (Jai Alai league)**, Gasteiz.
- 4 de abril: **Non eta Mugan Gazte Topaketa**, Labastida.
- 11 de abril: **Elkarrekin Martxan!**, Labastida, La Puebla de Arganzón y Cuadrilla de Ayala.
- 17 de mayo: **Etengabe Jaialdia**, Labastida.
- 15 de junio: **Araba Euskaraz 2025**, Olarizu (Gasteiz).

De cara al día de Araba Euskaraz, como en años anteriores, estamos preparando un día festivo dirigido a los más pequeños y a las familias, pero ofreceremos diversos actos culturales para todas las edades. Queremos que sea una fiesta participativa que potencie el uso del euskera. Será una fiesta con espacio para las instituciones, los patrocinadores y colaboradores.

BASTIDA IKASTOLA

Como se ha dicho anteriormente, Araba Euskaraz del 2025 se celebrará en apoyo a la Ikastola Bastida. Las ocho ikastolas trabajarán codo con codo, en auzolan, en las actividades que se organicen a lo largo de todo el año. La Ikastola Bastida se creó en 1979 con nueve alumnos. En la actualidad cuenta con 132 alumnos y alumnas y acoge no sólo a los de Labastida, sino también a varios alumnos y alumnas residentes fuera de Euskal Herria.

La Ikastola Bastida es uno de los principales agentes en favor del euskara en la localidad y busca incidir, al igual que dentro de la ikastola, en la revitalización del euskera en Labastida a través del programa Euskaraz Bizi.

Los objetivos que persigue la ikastola en este Araba Euskaraz son:

- Poner el acento en la labor que realizamos desde la Ikastola Bastida a favor del euskera y la cultura vasca.
- Incidir en Labastida y Rioja Alavesa a favor del euskera y la cultura vasca: nuestro objetivo es la transmisión y revitalización del euskera y de la cultura vasca, buscando, además del conocimiento, el uso, la creatividad y el disfrute.
- Dar a conocer y consolidar el proyecto educativo de la Ikastola Bastida: conseguir nuevas familias y nuevos compañeros de camino que participen en el proyecto.
- Obtener financiación para dar continuidad al proyecto de la Ikastola para hacer frente a las inversiones a realizar en la misma.

ARABA EUSKARAZ 2024

Además de presentar la fiesta de las ikastolas de Araba del 2025, en la comparecencia de hoy también hemos hecho una valoración del año 2024 del Araba Euskaraz. Debemos destacar que los objetivos marcados se han cumplido. Además de dar a conocer el proyecto educativo de la ikastola San Bizente, queríamos aprovechar Araba Euskaraz del 2024 para reivindicar e impulsar el uso del euskera en Oion y en Rioja Alavesa, así como para ampliar los espacios de uso. Y creemos que en parte lo hemos conseguido: con las actividades organizadas a lo largo del año hemos sacado a la calle el proyecto de la Ikastola. En Rioja Alavesa ha resurgido el interés por la Ikastola; la comunidad de la Ikastola está satisfecha con los resultados obtenidos y con la repercusión mediática se ha conseguido reforzar la imagen de la Ikastola San Bizente.

Por otro lado, el domingo 16 de junio miles de personas se acercaron a Olarizu a la fiesta de Araba Euskaraz. Estamos muy satisfechos con la respuesta que dio la gente. El día salió redondo y hoy también queremos agradecer a todos y cada uno de los que estuvieron trabajando voluntariamente.

Llevamos adelante todas las actividades que había en el programa de esta gran fiesta de las ikastolas, el euskera y la cultura vasca para los miles de personas que vinieron a Olarizu, y también vivimos momentos memorables. Nos gustaría destacar dos iniciativas que fomentan la participación. Por un lado, el proyecto **Erronka**, que en los últimos años tiene como objetivo fomentar la participación de jóvenes en las fiestas de las ikastolas y convertirlos en protagonistas. Por otro lado, nos gustaría mencionar la iniciativa **Dantza plaza**. Fue maravilloso ver a cientos de personas, niños, adolescentes, jóvenes, adultos y mayores bailando juntos.